



Arartekoaren 2018R-604-18 Ebazpena, 2018ko abenduaren 13koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio obra lizentzia bat ukatzearen aurka aurkeztutako errekurtsua berariaz ebatz dezala.

Aurrekariak

(...) Arartekoari jakinarazi diote Donostiako Udalak ez diola erantzun obra lizentzia bat ukatzearen aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsu bati.

Erreklamazio horretan aipatu dute Donostiako Udalera jo zutela –2018ko urtarrilaren 8an– Tokiko Gobernu Batzarraren 2017ko abenduaren 12ko erabakiaren aurkako berraztertze errekurtsua aurkezte aldera. Izan ere, erabaki horren bitartez, ukatu egin zitzairen (...)n bi etxebizitza eraikitze lizentzia udaleko (...) espedienteari dagokionez.

Erreklamazioan azaldu dutenez, 2018ko otsailaren 8an, udaleko Hirigintza Sostengagarriko arloak txosten juridikoa egin zuen, eta han ondorioztatu zen bidezkoa zela errekurtsua baiestea. Horren ondoren, txosten teknikoa ere prestatu zuen, 2018ko martxoaren 1ean, eta han ezarri zuen lizentzia ezesteari eutsi behar zitzaiola.

2018ko martxoaren 9an, beste idatzi bat aurkeztu zuten kexagileek Donostiako Udalean, eta berraztertze errekurtsuan azaldutako argudioak errepikatu eta garatu zituzten han.

Kexagileek Arartekoaren esku-hartzea eskatu dute aurkeztutako berraztertze errekurtsuari erantzun bat eman ahal diezaioten.

Erreklamazio hau behar bezala izapidetze aldera, 2018ko martxoaren 3an, Arartekoak Donostiako Udalari gai horri buruzko informazio eskatu zion, bai eta aurkeztutako errekurtsuari emandako erantzunari buruzkoa ere.

Arartekoak, 2018ko ekainaren 13an, hura bidaltzeko eskatu zion berriz udalari.

Eskaera horri finkatutako epearen barnean erantzun ez zitzaiola-eta, erakunde hau hirigintza arloko udaleko zerbitzu teknikoekin harremanetan jarri da, egindako informazio eskaerari erantzun diezaioten.

Nolanahi ere, lehenengo eskaera hori egin zenetik 7 hilabete baino gehiago igarota, ez zaio erakunde horri igorri.

Halaber, kexagileek erakunde honi behin eta berriro adierazi diote aurkeztutako errekurtsuari ez zaiola erantzun.





Zure erreklamazioan adierazitako kontuak baloratu ondoren, gogoeta hauek helarazten dizkizut.

Gogoetak

Erreklamazio horren arrazoia da, ez zitzaiola erantzun kexagileak –2018ko urtarrilaren 8an– Tokiko Gobernu Batzarraren 2017ko abenduaren 12ko erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsuari. Izan ere, erabaki horren bitartez, ukatu egin zen (...)n bi etxebizitza eraikitze lizentzia udaleko (...) espedienteari dagokionez.

Eskaera horiek eta aurrekarietan aipatutako gainerako kudeaketak izanagatik ere, Donostiako Udalak ez du igorri aurkeztutako errekurtsuari emandako erantzunaren gainean eskatutako informazioa.

Aurkezten diren idazki guztiei erantzutea eta horri buruz egindako administrazio-jarduketak interesdunari adieraztea, herri-administrazioen betebeharra da.

Administrazio prozedura orokorrak ezartzen ditu administrazioaren jarduera antolatu, bideratu eta fiskalizatzeko orduan kontuan hartu beharreko jarraibideak.

Administrazio izapideak dauden eta herritarrei benetan erantzuten zaien bermea Espainiako Konstituziotik bertatik dator (103.1. eta 105. artikulua), eta herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidean sartzen da (eskubide hori Lisboako Itunak ezarritako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua jasotzen du).

Administrazio onerako eskubide horren barruan, hauek aipa ditzakegu: aurkeztutako idazkien hartu-agiria, ofizioz bultzatzea eta agertutako kontuei berariaz erantzun beharra.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezartzen du berariaz ebazteko betebeharra. Hauxe dio artikulua horrek: *"Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua"*.

Finean, Donostiako Udalarari gogorarazi behar zaio administrazioak kexagilearen nahiei erantzunik ez emateak administrazioaren funtzionamendu okerra dakarrela, eta erakunde honek salatu egin behar duela egoera hori.





Hirigintza arloan udalak dituen eskumenen arloan, honako hau aipatu behar da: hirigintzako lizentziak egintza arautuak direla, eta horien gainean udalak ez duela diskrezionalitaterako tarterik; lizentzien helburua da obrek hirigintza arloko legeria eta udalerriko hirigintza arloko araudia betetzen dutela egiaztatzea, hau da, hirigintzaren legezkotasuna kontrolatzea.

Hirigintzaren legezkotasuna alde aurretik kontrolatu beharra jasotzen du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (2/2006, ekainaren 30ekoa) 210. artikulua. Arau horrek hau ezartzen du: *“Lizentzia eman baino lehen, udal-zerbitzuek nahitaezko txostena egingo dute eskatutako lizentzia hirigintzako legezkotasunarekin bat datorren ala ez adierazteko”*.

Hirigintzako lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (2/2006, ekainaren 30ekoa) 210.5. artikulua ezartzen du ukatzeko ebazpena arrazoitu egin behar dela, berariaz aipatuz proiektuaren kontrakoa adierazten duten hirigintzako antolamenduko arauak.

Kasu honetan, aipatu behar da bere eskumenen baitako administrazio egintzak eta administrazio prozedurarekin bat etorri, honako hau ondorioztatu behar dela: legearekin bat datozela, urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) jasotzen den moduan.

Horrek ez du esan nahi herritarrek ez dutenik eskubiderik administrazio egintzak administrazio bidean nahiz jurisdikzio egoitzetan errekurritzeko. Herri-administrazioen egintzen aurkako errekurtsioak jartzeko eskubidea Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua aitortutako benetako babes judizialerako oinarritzko eskubidean sartzen da.

Administrazio errekurtsioei dagokienez, 39/2015 Legeak, prozedura-izaerako oinarritzko arauak, hauxe ezartzen du 112.1. artikuluan: *“Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsioa eta aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arrazoietakoren bat”*.

Errekurtsioari emandako erantzunak argudiatutako arrazoiekin bat etorri behar du. 39/2015 Legearen 124. artikulua dioenez, *“Errekurtsioaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da”*.

Bestalde, Arartekoak azpimarratu du euskal herri-administrazioek Arartekoari bere zereginak bete ahal izateko eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide guztiak





lehentasunez eta presaz emateko betebeharra dutela. Eskatutako informazioa emateko eskaera ukatzea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Legez oztopatze bezala hartzen da eskatutako informaziorako sarbidea zailtzen duen jarduera oro (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. art.).

Arartekoaren iritziz, Donostiako Udalak, kasu honetan, ez du behar bezala bete legeak agindutako betebeharra. Aurrekarietan azaldu den moduan, kexa izapidetzeko garaian erakunde honek informazioa bidaltzeko eskatu behar izan du, eta zenbait kudeaketa informal ere egin behar izan ditu; ez dute balio izan, baina, behar zen erantzuna lortzeko.

Beste batzuetan adierazi izan dugunez, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handia dira legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, eta asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren interesak babes ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak Donostiako Udalari gomendatzen dio udalaren ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa berariaz ebatz dezala; haren bidez, (...)n bi etxebizitza eraikitze lizentzia ukatzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean agintzen den moduan.

Gainera, gogora ekarri du udal horrek, lehentasunez eta premiaz, bere eskumenen baitan Arartekoak eskatutako datu, dokumentu eta txostenak eman behar dituela.

